

oro korra



S i n d i k a l H e z i k e t a

2.

Autodeterminazio
eskubidea

LAB

Hezkuntza

2.

Autodeterminazio eskubidea.

2. Autodeterminazio eskubidea.

Moduluaren programazioa eta helburuak.

Modulu hau egun batean zehar garatzekoa da. Ezinbesteko da koadernotxoa aldez aurretik irakurrita edukitzea, baita beronen eztabaidan aktiboki eskuhartzea ere, lanaren planteamendu orokorrari zein partikularri buruzko ezbaiak, desadostasunak, ekarpenak eta abar planteatuz. Helburuak ondoko hauek dira:

- Herri bezala dagokion geroa askatasunez erabakitzeko Euskal Herriari zor zaion eskubideaz eztabaida zabaldu eta konklusioetara heltzen saiatzea.
- Autodeterminazio Eskubideak nazioarteko testuinguruan duen gaurkotasuna eta garrantzia aztertzea.
- Autodeterminazio Eskubidea oinarritzko eskubide, herri eskubide, giza eskubide... den hausnartzea.
- Autodeterminazio Eskubidearen egikaritzea Euskal Herrian BAKERAKO tresna baliagarria izan daitekeen ondorioztatzea.

Idatzi: **Xabier Onaindia**
Editatu : **Ipar Hegoa Fundazioa**



2.

oroakorra

SINDIKAI HEZIKETA

Autodeterminazio eskubidea. A.D.E.

Sarrera

Autodeterminazio eskubidea (A.D.E.) eta naziarteko zuzenbidea.

Gaurkotasuna eta garrantzia.
Nazioarteko testuinguruan duen eragin indartsua.

A.D.E.-ren karakterizazioa.

A.D.E eta Euskal Herria.

A.D.E.-ren artikulazioa.

A.D.E. eta Euskal Herriko bakea.

HITZ ZERRENDATXOA.

MODULUAZ GALDEKETA.

2. Autodeterminazio eskubidea.

XX. mendearen amaieran, Hirugarren Munduko 60. hamarkadako deskolonizazio prozesuen oihartzunak iraungiak zirenean jada, Autodeterminazio Eskubidearen (A.D.E.) ideia inork espero ez zuen indarrez berragertzen da Mendebaldearen bihotzean eta Eki Europako herrialdeetan. Eta berpiztu ere, II. Mundu Gerraren osteko banaketaz geroztik beren mugak ezertxo ere aldatu gabe mantendu zituzten 1. eta 2. munduko Estatu plurietnikoetan zirauten injustizia historikoak eta gatazka isilaraziak eta istilutsuak konpontzeko berpizten da; egin zenetik horrenbeste denbora iragan ondoren, banaketa hark behin-betikoa zirudienean hain zuzen.

A.D.E.-k, hau da, herri orok bere izango politikoa eta bere etorkizuna erabakitzeko duen ahalmenak, argi erakutsi du, erregimen edo egoera politiko ezberdinen gaineratik, herriarengan eta jendetza handiengan erakarpen handia duela, baita gatazkek konpontzeko bertute eta eragin indartsua ere. Erakarpen hori baldin badu, herri askatasunaren, eta askatasunaren aldeko borrokaren, adierazpen gorena delako da, gizateriaren historian konstante bat delako, historia mugitzen duen ideia eragile bat.



Autodeterminazio

eskubidea

eta nazioarteko Zuzenbidea


A.D.E. eta nazioarteko Zuzenbidea.

ADEa formulatu, oraintsu egin da, mende honen hasieran, Lenin iraultzaile sobietarra eta W. Wilson presidente estatubatuarra izan baitziren (1918) formulatu zutenak. Baina hasierako formulazio horiek egin zirenetik, nazioarteko deklarazio garrantzitsu eta zabalenean jasotako, ezagutu, birformulatu eta beren gain hartu dute autodeterminazio eskubidea:

Deklaraziotako batzuek duten fermutasun eta erradikaltasunak harritu egiten gaituzte batzuetan, 1960ko NBEaren (UNO) Batzar Orokorrarenak, kasu, hauxe baitio: herrien A.D.E. beste edozein eskubide baino lehenagokoa dela. Beste batzuk argi eta ulerterrazak dira: Eskubide zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Itunak egin duena, adibidez, bere I. Arti-

Nazioarteko deklarazioak

▷ Atlantikoko Karta (1941), Nazio Batuen Deklarazioa (1942), Yaltako Konferentzia (1945), Nazio Batuen Karta (1955), Eskubide Zibil eta Politikoei buruzko Nazioarteko Ituna (1966), Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturaleri buruzko Ituna (1966), Helsinkiko Deklarazioa, Algereko Karta (1976).



2. Autodeterminazio eskubidea.

kuluan dioenean: "Herri guztiek dute libreki autodeterminatzeko eskubidea. Eskubide horren bidez beren izango politikoa ebazten dute libreki eta beren garapen ekonomiko, sozial eta kulturala eraikitzen". Baina guztiek dute elementu bat amankomunean: A.D.E.

defendatzea, deklarazio horietako gehienak nazioartean pisu espezifikiko handiena duten Estatuak sinatu dituztelarik, besteak beste, Espainia eta Frantziako Estatuak, gero beren "osagai" diren herriei ukatzen badiete ere.

Autodeterminazio Eskubidea nazioarteko deklarazio garrantzitsu eta masiboek bildu, ezaqutu, birformulatu eta bere egiten dute.



Gaurkotasuna eta garrantzia

Nazioarteko
testuinguruan
duen
eragin
indartsua.

Aipatu dugu sarreran ADEak erabilpena eta indarra izan zituela deskolonizazio prozesuetan eta gero zeharo ahanzi zela, eta aipatu ditugun nazioarteko testuetako azkenak, Algerekoak, 20 urte ditu jada. **Hau ez da kasualitatea, baizik Mendebaldeak eta Estatu plurinazionalak, Afrika eta Asiako beren arazo kolonialak soluzionatu ondoren -gogoz kontra eta biolentzia erabiliz gehienetan (Algeria...)-, A.D.E.-ri buruz egin duten interpretazioaren emaitza. Lehenengo eta behin ekonomikoki ahitzeraino agortu zituzten beren koloniak, eta gero, status hura mantentzeak onura baino kostu gehiago zerkarkienez, bertan behera utzi.**

Lotsagabekeriarik handienaz zabaldu dute **Ur Kresalaren Teoria**, beronen bidez ADEa kolonia-herrialdeei soilik aplikagarritzat onartuz, alegia, itsasoa bitarteko dela metropolitik fisikoki eta kulturalki urrun dauden herriei, Estatu plusinazionaletan elkarren ondoren ziren herriei, ordea, zeharo ukatzen zieten bitartean. **Batzuek txalotu eta lagundu egin dute ADEa inoren etxean -Europar Batasunak, adibidez, Herrial-**

de Baltikoetan-, beren etxean, ordea, jarrerarik setatienaz egungo mugak defendatzen dituzten bitartean, beretariko askok etxean dutelako arazoa (euskaldunak, irlandarrak, flandriarrak, korsikarrak...).

Bi parteetariko bati ere status-aldaketarik komeni ez zitzaion abagune politikoan (Gerra Hotzean) eta beren Ur Kresalaren Teorian oinarriturik, Mendebaldeko Estatuak lortu ere egin dute 45 urtetan zehar beren baitan ezer ez aldatzea. Baina abagunea aldatu eta Sobiet Batasuna behera etorri denean, ezin izan dute galarazi herri askoren askatasun gurariak aho batez azaltzea eta lehertzea, hainbat eta hainbat falazia agerian utziz. Eta gurariok Sistemaren beraren bihotzean, gibel-gibelean, lehertu dira, statusak aldaezina zirudien lekuan.

Abagune aldaketak eta ESSB-aren gainbeherak ez dute eragotzi herri askoren askatasun guraria.



2. Autodeterminazio eskubidea.

ADEak gaurkotasuna ezezik, eraginkortasuna ere erakutsi du, hau da, egoera korapilatsu eta oso ezberdinei irtenbidea emateko balio duela.

Hau guztia denbora laburrean gertatu ondoren, nekez uka daiteke ADEaren gaurkotasuna eta in-

darra. Hain egoera ezberdinetan izan duen eraginkortasuna begibistakoa da edozein behatzailerentzat ere. Duen garrantzia, hainbeste al-daketa eta hain handiak egiteko bidea eskaini duenean -eta ez Hirugarren Munduan, baizik eta Lehenengoaren bihotzean-, eztabaidaezina da.

Autodeterminazio Eskubidearen erabilpen oraintsuko eta desberdinak:

- ▷ Potentzia handi bateko bereizpen edo sezesioa: Estonia, Letonia, Lituania, Ukraina...
- ▷ Estatu plurietniko bateko bereizpena: Kroazia, Eslovenia.
- ▷ Estatu bitan banaturiko herri baten bategitea: Alemania.
- ▷ Estatu berean bizi ziren bi herriren banatzea: Txekia, Eslovakia.
- ▷ Quebecoko erreferenduma burujabe izateko.
- ▷ Gatazka bortitz bat konpontzeko bide moduan: Major eta Reynoldsen 94ko deklarazioak ADEa aitortzen du lehenengo puntuan.



Alemania: Estatu bitan bananduriko herri baten bateratzea.

Autodeterminazio Eskubidearen karakterizazioa

ADEari ezaugarriak ezartzea komeni da, labur bada ere, gaizkiaditu bat baitago oso zabal hedatu dena, asmo oneko pertsonenganaino heltzen dena eta eskubide hau eskubide barik, aukera politiko bat besterik ez dela dioena.

Nahiz eta egia den aukera politiko batzuek herrien autodeterminazio eskubidea gartsuago defendatuko dutela (kontrarioek, aitzitik, aurka egingo dieten bitartean), beroni ezaugarriak jarri eta karakterizatzean edonork ondoko hau ulertzea nahi dugu: demokratizako bat, baldin eskubide hau beste edozein bezala defendatzen ez badu, ez dela demokrata, eta inor ezin dela ibili harrokeriaz esaten berak giza eskubideak defendatzen dituela, baldin ADEa albo batera utzi, ukatu edo arbuiztzen badu.

A.D.E.a eskubide da:

- **Giza eskubidea:** Pertsonaren askatasunak hain garrantzia handia izanik, Giza Eskubideen Deklarazioko 1. Artikuluan jasotzen da (hirugarren datorren "bizitzeko eskubidea" bera baino le-



henago). Askatasun indibidualak lehen mailako tratamendu hori badu, ADEak, herriak libre izateko duten eskubidea edo askatasun indibidual horren talde-adierazpena izanik, nahitaez giza eskubide izan behar du.

- **Oinarrizkoa:** Horregatik NBEaren Eskubideei buruzko Itunaren 1. Artikuluan jasotzen da, gainerako giza eskubideen erabilpena babesten duena dela adierazi nahirik.

- **Kolektiboa:** Giza taldeen edo kolektibitateen eskubideak, sindikalak adibidez, indibidualki barik, kolektiboki gauzatzen dira. ADEa-

Autodeterminazio Eskubidea giza eskubide funtsezkoa, kolektiboa eta demokratikoa da.

2. Autodeterminazio eskubidea.

ren subjektua herria da, talde moduan, eta banakoei herritar izate-tik datorkie partaidetasuna eskubide horretan.

- Demokratikoa: Demokrazia pertsonak duintasunez eta eskubidez duten berdintasunean oinarritzen da. ADEak herri guztiek beren artean duten berdintasunean du oinarria.


Aukera politikoa barik, demokrata guztiek defendatu beharreko eskubidea da, nahiz eta bera gauzatzean hautatu beharreko aukeren artean bereizpen edo sezesioarenak ere hantxe izan behar duen.

Kolektibitate bati independentzia hautatzea (beste aukera batzuen artean) ahalbidetzen zaionean, orduantxe bakarrik esan daiteke zehatz eta zuzenki A.D.E. aplikatzen dela. Horregatik euskaldunok Estatutua bozkatzeko edo hauteskundeetara goazen guztian autodeterminatu gairela diotenek, edo **ezjakin hutsak** (gutxi) edo lotsagabe garbiak dira (gehienak), **euskaldunok ez baitugu inoiz ukan aukera egiterik hautabide ezberdinen artean (independentzia, federazioa, konfederazioa...),** E.A.E.-an Estatutuaren aukera besterik ez dugularik ukan eta berau ere Damoklesen ezpataren mehatxupean -hauxe edo ezer ez-, eta nafarrei boturik ematen utzi gabe Amejoramentua ezarri zaie derrigorrean. Iparraldea, aldiz, denik ere ez.

Bizitzeko eskubidea bezalaxe, edo nahiko oraintsu arte emakumeei ukatzen zitzaien botu eskubidea bezalaxe, ADEa **ez dago gehiengo-gutxiengoaren jokoa-
ren pean eta ez da oraintxe eman eta oraintxe ken daiteke-
en zerbait. Inork ez du inoiz ukan emakumeari botu-eskubidea edo beste eskubiderik kentzeko eskuduntzarik ez ahalmenik, ezta gehiengorik gehiengoaren ere. Berdin ADEaren kasuan. ADEa, zenbat alde eta zenbat kontra di-tuen kontatzearekin zerikusirik gabe, herri guztiei datxekien eskubide da.**

ADEa aukera politiko bat balitz, berau proposatzen duten Nazioarteko Itunak ez zituzketen hain herrialde diferenteek eta hain erregimen politiko desberdinek sinatuko, nahiz eta gero beren lurraldeetan aplikatu gura ez. Edonola ere horrek frogatzen du, eskubide horretan sinetsi ez arren eta eskubide hori erabiltzen edo gauzatzen uzteko prest daudenak gutxi izan arren, inork ezin duela sinatu barik utzi, baldin munduaren begietarako antide-mokrata eta zapaltzaile gisa geratu nahi ez badu.

A.D.E., ideologia jakin baten monopolioa barik, demokrata orori dagokion errebindikazioa da, hauek, eskubide sindikalak bezalako eskubide kolektiboen kasuan bezalaxe, A.D.E. errebindikatzen utzi bakarrik ez, erabil eta gauza dadin galdatu behar dute.



Autodeterminazio Eskubidea eta Euskal Herria

Euskal Herria (E.H.), baldin dagoen bezala hiru administrazio-entitatetan (Pyrénées-Atlantiques, Nafarroako Foru Komunitatea eta Eusko Autonomi Elkarte) banaturik jarraitzen bada, erremediorik gabe desagertzera kondenaturik dagoen herri txiki bat da, Frantzia eta Espainiako bi Estatu plurinazionalen menpean dagoena, Estatuok ADEa aitortzen edo ezagutzen diguten Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna sinatu dutenak direlarik, baina beren Konstituzioetan eta haietatik eratorritako legerian esplizituki ukatzen digutenak.

1978ko Espainiar konstituzioaren artikulok:

- ▷ 1. Artikuluan dio: "La soberanía nacional reside en el pueblo español"; ez, beraz, E.H.-an
- ▷ 2. Artikuluan: "La Constitución se fundamenta en la indisoluble unidad de la Nación española, patria común e indivisible de todos los españoles"; ez dago, beraz, bereizterik edo sezesioa aukeratzetik, bereiztezina da eta.
- ▷ 3. Artikuluan: "Las Fuerzas Armadas (...) tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional". Artikulu honek kanpora barik barrura begira idatzirikoa dirudi, hau da, begi bata paperean eta bestea Euskal Herrian jarrita.

1978 Frantziar konstituzioaren artikulok:

- ▷ 1. Artikulua: (gaztelaniazko itzulpenean emanda) "El pueblo francés y los pueblos de los territorios de ultramar, quienes, por un pacto de libre determinación, adoptan la presente Constitución e instituyen una comunidad. La Comunidad se fundamenta en la igualdad y solidaridad de los pueblos que la componen". Argi dago: euskaldunak frantses herriaren ur gezazko putzuan "urtuta" geratzen dira, nortasun propiorik gabe.

E.H.-ari bere ADEa ukatu ezezik, lurraldetasuna ere eztabaidatu egiten zaio eta espainol intelektualen zati batek herri izatea ere ukatu egiten dio, "egiazko herri" baten baldintza objektibo eta subjektibo guztiak betetzen ez omen ditugulako. "Aurkikunde teoriko" honek intelektual organiko batzuei, progre moduan Bosniarako A.D.E. defendatzen eta euskaldunnei ukatzen ibili ondoren, zabal eta zabar lo egiten uzten die. Jakina da 1.000 kilometrotara ona dena etxean ona ez izatea gerta daitekeela.

2. Autodeterminazio eskubidea.

60. hamarkadara arte, talde bat herri noiz den eta, beraz, eskubide honen subjektu noiz den erabakitzea gehienbat irizpide objektiboetan oinarritzen zen. Baina **azken urteotan irizpide demokratiko-subjektiboa gero eta garrantzi handiagoa hartuz doa; beronen arabera talde bat herri da, bere etorkizuna erabakitzea nahi duenean, kolektiboki bizi nahi duenean.**

Nabaria da irizpide objektibo hutsak, etorkizun amankomuna eraikitzeko gogorik gabe, ez direla aski. Halaber nabaria da irizpide subjektibo hutsak, objektiboetako bat ere ukan gabe, ez duela herri-zein den definitzeko balio. Baina, **baldin talde batek irizpide objektibo guztiak edo batzuk bederen baditu eta gainera herri izan nahi badu, inork ezin uka diezaioke herri izatea.** Ez dago argudiorik ez printzipiorik ukazio horri oinarria eskainiko dionik, argudio "gorena" -indarkeriarena- kenduz gero.

Ez Euskal Herriak agian, ez munduko beste ezein herri ere beharbada, ez ditu irizpide guzti-guztiak betetzen, baina badugu lurralde bat, hedadura zehatza eztabaida diezaguketen arren, Pirinio Mendien alde bietan hedatzen dena eta horrelaxe ezagutzen dutena euskaldunek eta mugakideek, baita hizkuntza bat ere, berezia eta bertan bakarrik egiten dena. Antropologiari dagokionez, hainbat migrazioaren eragina izanagatik, baditu euskal etniak ezaugarri be-

reziak eta ahaidetasun bat; gure historian badira egitate amankomunak, baita, Foruak bezala, bertokoak ditugun instituzioak ere; eta gure geografian zehar etorkizun amankomuna eraikitzen burrukalari diharduten gizon eta emakumeak ageri dira.

Hau guztia edukirik, inork ez du E.H.-ari herri eta ADEaren subjektu izatea ukatzeko argudioen indarririk. Eta ADEaren subjektu Euskal Herri osoa da, ez zati bat bakarrik; eta herri-zati batek eskubide hura egikari baleza ere, ez leukake baliozkotasunik E.H. osoaren izenean izan ezean.

Ez gara euskaldunak herri bagarela frogatu behar dugunak; autodeterminatzeko eskubidea ukatzen digutenek frogatu behar dute ez garela, edo, bestela, argi eta garbi aitortu behar dute fisikoki indartsuagoak direlako ukatzen digutela eta geuk ere indarra beste biderik ez dugula ADEa erabili ahal izateko.

Euskal Herriak badu bere hizkuntza, zeina, minorizatua edo gutxitua izan arren, hizkuntza propio bakarra eta inguruko herriek konpartitzen ez dutena ere.



ADEaren ezagutza eta aitortpen formalak ia ahobatekoa bada ere, praktikan, Kanadako edo Txekoslovakiako portaera demokratikoa kenduz gero, artikulazioak gatazkak sortzen ditu beti, baita gerrak ere.

A.D.E.aren

Artikulazioa

Helsinki 1992an bildu zen Europar Lankidetzaren eta Segurtasuneko Konferentzian Gutxiengo Nazionalen Goi Batzorde bat izendatu zen haien eskubideak zaindu eta gatazkak agertu edo larriagotzea ekiditeko neurriak hartzeko. Ordutik hona milaka eta milaka pertsona hil dira Balkanetan Goi Batzorde horrek inola ere ekidin barik, eta Euskal Herrian, guk dakigunez, ez du inolako gestiorik egin.

Nazioartean ez dago organismerik, eta NBEak berak ere ez du organorik, gutxiengo nazionalak bertara jo dezaketarik, eskubide hau praktikan artikulatu nahi dutenean. Are, NBEak ez du eskubide horren arbitraia egiteko edo Estatu kide bat ADEa praktikan jartzen uztera behartzeko ahalmena duen organorik.

Nazioarteko hutsune honen aurrean, oso gutxi dira munduan beren arteko diferentziak Txekia-Eslovakiak edo Kanada-Quebecek bezala ebazten dituzten herriak. Euskal Herriaren kasuan, euskaldunok inola ere ez dugu ezer artikulatzeko modurik, menpean gaituzten Konstituzioek, gorago idatzi dugun moduan, burujabetza zeharo ukatzen digutelako Frantziako eta Espainiako Estatuei emanez, azkenaren kasuan armada delarik

artikulazio oro galarazteko Konstituzioak berak jarria.

Horregatik, bada, ADEa erabili ahal izateko lehenengo pausu moduan Konstituzio horiek, eukaldunoi dagokigunez, antidemokratikotzat salatu behar dira. Bigarren pausua Konstituzioa aldaraztea da; baina hau lehenengo Parlamentuak proposatu beharko luke eta gero "pueblo español"-ak edo frantsesak erreferendumean baitza eman, euskaldunak 2 miloi eta erdi bakarrik garelarik gutxienez 100 miloi baino gehiagoren artean. Bide honi, horrela lehenengo ikusian, bide zail deritzogu, eta are zailago nazionalista espainolek izaera eta estiloa ez dela kanadarrena dakigun moduan jakinik.

Edonola ere, beti daukagu inertzia bat oraingo egoera aldeztatzat jotzera garamatzana, baina,

Armada da. Konstituzioak damaion leqaltasunaren ize-
nean. Autodeterminazio
Eskubidearen edozein artiku-
lazio eragozten duena.



2. Autodeterminazio eskubidea.

hala ere, aipatu dugun Major eta Reynolsen arteko akordioan hau xe esaten zen:

2. puntuan: "Britaniar Gobernuak bere legeetan aldaketa konstituzionalak proposatuko ditu Ipar Irlandako herriaren gehiengoaren nahia aintzatesteko. Ez da tartekatuko Erresuma Batuaren zati izaten segitzea edo Irlanda batuaren zati izatea erabakitzeke duen askatasunean".

3. puntuan: Irlandako Konstituziotik Ipar Irlandari buruzko erreibindikazioa kentzeaz hitzegin zen. Beraz, egoera aldaezin horiek, Konstituzio ukiezin horiek, muga mugiezin horiek ez dira hainbesterako eta Espainiako Estatuak baino pedigri demokratiko garbiago dutenek ere, abaguneak hala eskatuz gero, sar dezakete aldaketa sakonik beren printzipioetan.

Estatutua eta Amejoramientua ezin dira hartu, seriooki bederen, ADErako aurrepausu edo bideztat. Biak daude, lege moduan, ADEa esplizituki ukatzen duen Konstituziopean eta, beraz, haren menpeko arau-lerruna dutela, eta Estatuko aparatuek helmugatzat dituzte bata zein bestea -eta ez abiapuntutzat-, halaxe berretsi duelarik oraintsu Aznar jaunak. Euskal menpekotasun hori hain da nabaria ezen Eusko Legebiltzarren ADEaren aldeko deklarazioak berak ere ez baitzuen izan inolako oihartzunik praktikan, eta hantxe datza paperen ontzian. Marko ins-

tituzional hau inora ere ez daraman bide antzua besterik ez da, berorren barne bizi direnek bakarrik defenda dezaketena. Marko horrek berba egitea eta iritzia baimenduko ditu, baina inola ere ez du baimenduko ADEa gauzatzetik.

Euskaldunok geure ADEa bakez eta era zibilizatuan artikulatu ahal izateko irtenbide bakarra, Frantziak eta Espainiak nola edo hala Euskal Herriari subiranotasuna ezagutu eta aintzatestetik eta ADEa gauzatzeko behar diren Konstituzio aldaketak proposatzetik pasatzen da. Baina zoritxarrez ez da ageri baikortasunerako seinale txikiarik ere, aitzitik, denen sufrimendua luzaraztearen hautabideari darraiotela ematen du.


Instituzio-marko hau inora ere ez daraman irtenbidegabeko bidea da, haren lepotik bizi direnek bakarrik defenda dezaketena.



A.D.E. eta Euskal Herriko bakea.

ADEa praktikan jartzeko legezko ezintasunari beste hauek gehitzen badizkiogu: nazioarteko mailan inolako arbitraia-prozedurarik ez izatea autodeterminazioa erabiltzeko eskubidea nork duen eta nork ez duen erabakitzeko, NBE-ak, gatazka sortzen denerako, erabakitzeko ahalmendun organorik ez edukitzea eta Estatuak subjektua, lurraldea, historia, noiz eta nola egin... beti eztabaidatuko duten ziurtasuna, horiek guztiak kontuan hartuz gero, diogu, beharrezko baldintza guztiak ditugu berez kontentzioso politikoa dena, baldin herriek beren eskubideetan inork ezer kentzerik nahi ez badute, indarkeriazko gatazka bihur dadin.

ADEa ukatzearen eta gogorkeriazko gatazkaren arteko kausa-efektu erlazioa ukaezina da. Ez dakigu nahitaez horrela izan behar duen ala ez, baina badakigu hemen E.H.-an horrelaxe dela eta, nahi ditugun laborategiko analisi guztiak egin arren eta hitzei beren esangura aldarazi arte dialektikan jardun arren, lehenengoari soluzio demokratiko eman artean ez dugula bigarrena konponduko. Gure herriaren azken 150 urteetako historiak zeharo berresten du hori.



ETAk berak, gatazkan zuzenean dihardutenetako bat izanik, apirilaren 15eko komunikatu batean suetena deklaratu eta indarkeriazko gatazka gatazka hertsiki zibil eta politiko bihurtzeko jarrera duela deklaratu du, baldingure herriari ADEa eta lurraldetasuna eza gutzen bazaizkio. Eta horra hor Estatuaren erantzuna: eskaintza horren deskalifikazioa eta hura defendatzen dutenen jazarpen judiziala.

Irtenbide baketsu eta zibilizatu bakarra hauxe da: Frantziak eta Espainiak eza gutzea behingoz Euskal Herriari subiranotasuna daqokiola.

berbategia



AUTODETERMINAZIOA

Nazio Batuek beren sorreratik bertatik instituzionalizaturiko printzipioa. Herriek beren helburu propioak, gobernu-forma eta munduarekiko harremanak libreki ebatz ditzaketela esan nahi du.

Lurralde-gune bateko bizilagunek etorkizunerako beren status politikoa libreki erabakitzea.

AUTONOMIA

Estatuak bere osakidetzat duen lurralde bati, ezaugarri bereziak dituela eta, damaion deszentralizazio administratiboa, kudeaketa-maila batzuk luzatzen dizkiolarik, baina subiranotasuna eta, beraz, independentzi eskubidea ezagutu gabe.

KONFEDERAZIOA

Ororen gaineko botere baten menpean biltzen diren Estatuak, bakoitzak bere gobernua mantenduz.

Konfederazioetan botere zentrala koordinazio-organismo batek osatzen du funtsean, honen erabaki guztiak -edo ia guztiak- Estatukideek aho batez hartu behar dituztelarik.

FEDERAZIOA

Zenbait herrik gobernubidetzat darabilen (Federalismoa) sistema, lurralde federatuek beren soberania zati bat damaiotelarik Estatu zentralari, beronen menpean geratuz neurri handiago edo txikiagoan.

Federalismoa: Boterea Estatu zentral baten eta federaturiko Estatu edo Lurralde ezberdinen artean banaturik aurkitzen den sistema politikoa.

Elkarte bakoitzak bere subiranotasunaren zati bat botere amankomunaren mesedetan lagatzea suposatzen du.

FORUAK

IX. mendearen hasieran hezurmamitzen hasten den Foru Erregimena. Pirinioan zehar hedatzen da, lurralde bakoitzean idatzira jasoriko usadio eta ohituretan oinarrituta, 1716az geroztik Euskal Herriak soilik kontserbatuko dituenak. 1789ko abuztuaren 4an Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan abolituko dituzte. Azken eraispena GERRA KARLISTETAN gertatzen da, Abolizio Legeen erara.

INDEPENDENTZIA

Nazio batek (etnia, aberri, erregio edo dena delako izenez deitu) bere burua gobernatzeko duen ahalmena edo subiranotasuna, beste Estatuaren aldetiko presiorik gabe.

SUBIRANOTASUNA

Botere politikoa herriak berak egikaritzea, Subiranoaren edo Monarkiaren ideia klasikoi kontrajarria.

Botere publikoaren aginte gorena.

Herrian datzana eta herriaren ordezkari diren organo konstituzionalek egikaritzen dutena.

MODULOAZ GALDEKETA

- 1.- ZERTAN DATZA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?
- 2.- BA AL DU GAURKOTASUNIK ESKUBIDE HORREK?
- 3.- ERREIBINDIKAZIO DEMOKRATIKOA AL DA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?
- 4.- ZEIN OTE LEHENAGO: BIZITZEKO ESKUBIDEA ALA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?
- 5.- BA OTE DU EUSKAL HERRIAK ASKATASUNEZ AUTODETERMINATU AHAL IZATEKO ESKUBIDEA?
- 6.- BAKEA LORTZEKO BALIAGARRIA AL DA AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA?
- 7.- IRITSI AL GAITEZKE EUSKALDUNOK AUTODETERMINAZIO ESKUBIDERA GAUR EGUNGO KONSTITUZIOAREKIN?